

# Bazen behin...

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

*Jarduera honetan gure ikaskidea txikitan nolakoa zen azalduko dugu.*



## 1- Nor da nor?

*Gustuko duzun txikitako argazki bat ekarri gelara, txango bat egin zenuen egun batekoa. Talde handian, begiratu ikaskideen argazkiei eta asmatu norena den.*

- Nik uste dut argazki hau Amaiaarena dela. Uste dut askotan joaten zela mendira bere aitarekin. Hala da, Amaia?
- Bai, hala da. Nirea da argazkia. / - Ez, ez da nirea, saiatu berriro.



*Guztien argazkiak ikusi ondoren, kontatu nolakoa izan zen zure argazkiko egun hura: nork atera zuen argazkia, zein lekutan, norekin zeunden, zer egin zenuen ...*

*Argazki hau mendiko txango batean atera zuen gure amak. Ez dut gogoratzen mendiaren izena. Nik 5 edo 6 urte neuzkan. Uda zen eta gurasoekin joan nintzen. Argazkian aitarekin nago. Oso eguraldi ona egin zuen eta primeran pasatu genuen.*

## 2- Mendian gora lagunak

*Ikusi bideoa eta erantzun galderei:*

**Zer adierazi dio brometan Anttonek Amaiari?**

- a- Josuk atzamar guztiak behar dituela lanerako
- b- Josuk atzamarrak galdu dituela aroztegian
- c- Josuk atzamarrak ez duela galdu oraindik

**Zer esan dute argazkien inguruan?**

- a- Oso lanbide zaila dela argazkilariarena
- b- Egun ederra dela argazkiak ateratzeko
- c- Izarok argazki txarrak ateratzen dituela

**Zer dio Izarok Anttonek proposatutako ibilbideaz?**

- a- Laburra dela, hiru orduetan egingo dutela
- b- Ziurrenik, txangoa lau ordukoa izango dela
- c- Ordubeteko ibilaldia izango dela

### 3- Nolako haurra zinen?

*Pertsona batzuek nolako haurrak ziren kontatuko digute. Entzun eta, binaka, lotu pertsona bakoitzari bere ezaugarria*

<b>Maider</b>	Ameslaria
<b>Asier</b>	Berritsua
<b>Urko</b>	Kalekumea
<b>Leire</b>	Animalia zalea
<b>Andoni</b>	Bakartia
<b>Iker</b>	Alaia
<b>Maite</b>	Baldarra



*Zuzenean eta zeharka. Norbaitek esandakoa kontatzeko estilo zuzena edo zehar estiloan erabil daiteke.*

#### Zuzenean

Asierrek esan du: “Animaliak oso gustuko nituen”.

Urkok esan du: “Lau ginen familian: gurasoak eta arreba bat, zazpi urte” zaharrago

#### Zehar estiloan

Asierrek esan du animaliak oso gustuko **zituela** .

Urkok esan du lau **zirela** familian.

*Entzugaian jasotako informazioa erabilia, ikaskidearekin osatu hurrengo esaldiak eta zehar estiloan berridatzi.*

Estilo zuzenean	Zehar estiloan
Maiderek esan du: “ .....	Maiderek esan du...
Asierrek esan du: “ .....	Asierrek esan du...
Urkok esan du: “ .....	Urkok esan du...
Leirek esan du: “ .....	Leirek esan du...
Andonik esan du: “ .....	Andonik esan du...
Ikerrek esan du: “ .....	Ikerrek esan du...
Maitek esan du: “ .....	Maitek esan du...

*Eta zu? Nolako haurra zinen zu? Kontatu ikaskide bati, labur-labur beheko eskemari jarraituz:*



- Nolakoa zinen (Itxura edo izaera)
- Familia: zenbat senide, zenbagarrena...
- Zer egiten zenuen (planak, jolasak, ohiturak...)
  
- **Gogoratu: Denbora hartan kokatzeko esapideak:** haurtzaroan, txikitan, txiki-txikitatik, ume garaian, txikia nintzenean...
  
- **Kontuan hartu:**  
"Noren" kasua pluralean jartzeko joera du euskarak: gure alaba, gure etxea, gure amak eta abar. Beraz, gaztelaniaz "mi padre" esaten den testuinguruetan, hobe da "aita" edo "gure aita" erabiltzea.

*Azaldu taldearen aurrean zer kontatu dizun zure ikaskideak bere haurtzaroari buruz. Talde handian erabaki nolakoa zen ikaskidea txikitan eta aukeratu adjektibo egokia: ameslaria, berritsua, kalekumea, animalia zalea, bakartia, alaia, baldarra...*

**Maitak esan dit** lau anai-arrebetatik hirugarrena **zela**, lotsatia eta beldurtia **zela** eta ahizparen atzetik ibiltzen **zela** beti.

**Azpimarratu du** askotan joaten **zirela** Iturenera eta behin eta berriro **adierazi dit** oso ondo pasatzen **zuela** bertan.

**Kontatu dit...**

**Behin eta berriro errepikatu dit...**

## 2- Mendian gora lagunak

**Zer adierazi dio brometan Anttonek Amaiari?**

c- Josuk atzamarrrik ez duela galdu oraindik

**Zer esan dute argazkien inguruan?**

b- Egun ederra dela argazkiak ateratzeko

**Zer dio Izarok Anttonek proposatutako ibilbideaz?**

b- Ziurrenik, txangoa lau ordukoa izango dela

## 3- Nolako haurra zinen?

<b>Maider</b>	Bakartia
<b>Asier</b>	Animalia zalea
<b>Urko</b>	Alaia
<b>Leire</b>	Ameslaria
<b>Andoni</b>	Baldarra
<b>Iker</b>	Kalekumea
<b>Maite</b>	Berritsua